



**EUSKARAREN AITORTZARI BURUZKO  
EUSKO JAURLARITZAREN ADIERAZPENA**  
(2005/6/14)

Europar Batasuneko Kanpo Harremanetako Ministroek hartu duten erabakia aurrera pausu txiki bat da euskara, katalana eta gailegoa aitortu eta Europako hizkuntza ofizial gisa errekonozimendura eraman behar duen bidearen barruan. Aurrera pausu txiki bat ere Europar Batasuneko erakundeek irabazi behar duten aitortzaren bidean.

Norabide onean baina urrats txikia da Europako partaide eta Europaren kultur aniztasunaren ezaugarri diren hiru hizkuntza hauentzat eta hauen herrientzat. Euskaldunok eta katalan eta gailegoaren hiztunek, gure hizkuntzen onarpena eta ofizialtasuna eskatzen dugu.

Euskara hemengoa da, Europa deitzen dugun eremu honetakoa.

Kanpo Harremanetako Ministroek hartu duten erabakia, bestalde, ez da opari bat, baizik eta eskubide baten aitortza.

Europar Batasuna eta beronen erakundeek herritarrengana hurbildu beharra dute. Ezin diote bizkar eman errealitateari eta Europaren ezaugarri den hizkuntza aniztasunari. Europako eremuetan mintzatzen diren eta ofizialak diren hizkuntzak baztertzea eta herritarrei Europako erakundeekin beraietan zuzentzea debekatzea ez dirudi biderik aproposena Europako erakundeek irabazi behar duten hurbiltasun hori sendotu eta herritarrak bereganatzeko.

Azkenik, bitxia da urrats txiki hau Europan eman denean hori bera aitortu gabe izatea Espainiar Estatuaren baitan. Kanpoan uxu, etxean otso, herritarren ordezkariak ezin dute euskaraz, katalanez edo gailegoz hitz egin Kongresuan eta Senatuan. Norabide onean emandako pausua hemen ere gauzatu beharko litzateke.